

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Eroski Taldeak Nafarroan zer estrategia duen jakin du

Taldeak jakinarazi du "Buelta eman nahi diogu" ekimenarekin bat egingo duela laster batean

Jueves, 07 de junio de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina-k Eroski Taldeko zenbait ordezkari harrera egin die bere bulegoan, gaur. Bilkuran, konpainiako agintariek enpresak Foru Komunitatean zer lerro estrategiko nagusi dituen jakinarazi die eta "Buelta eman nahi diogu" ekimenarekin bat egingo duela laster batean helarazi die. Ekimen hori Foru Gobernuak eta enpresario nafar talde batek sustatu du krisi ekonomikoa gainditzeko ekimenak nahiz ahaleginak batzeko xedearekin.



Barcina Lehendakaria Eroski Taldeko ordezkari harrera eginen.

Eroski Taldearen aldetik, honako hauek izan dira bilkuran: Agustín Markaide lehendakaria; Hiper Iruñako gerente Anabel Zariquiegui eta Erakunde Harremanetako zuzendari José Miguel Mera. Nafarroako Gobernutik, gainera, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilari Lourdes Goicochea izan da.

Eroski Taldea Nafarroako elikagaien banatzaile nagusia da, 130 establezimendurekin eta 1.900 langilerekin, eta kopuru horretatik 1.077 bazkide-kooperatibistak dira. Gainera, Foru Komunitateko nekazaritzako elikagai-sektoreko lehen merkataritza-bazkidea da: 220 ekoizle nafarri erosten die, azken bost urteotan 1.000 milioi euro gastatuz. Iaz bakarrik, erosketa horiek 257 milioi eurokoak izan ziren, hau da, sektorearen % 7a.